Jose Maria Arizmendiarrietaren heriotzaren 50. urteurrena

Ez nuen Arizmendiarrietarekin bizirik zela traturik izateko ohorerik izan, bai ordea haren dizipulu eta laguntzaileetako birekin, Alfonso Gorroñogoitiarekin eta Jose Maria Ormaetxearekin, eta horrek ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEAk (ALE) artikulu hau idazteko egindako eskaerari erantzun positiboa emateko erabakian lagundu du.
JMAren gogoetei eta lanei buruz idatzi da, eta idazten jarraitzen da, eta uste dut nik ez dudala ezer berririk ekarriko alde horretatik. Baina bai esan nahi dut familiaren eragina funtsezkoa izan zela haren konpromiso sozial eta erlijiosoan. Eskura dagoen informazioaren arabera, JMA 1941ean iritsi zen Arrasatera, San Joan Bataiatzailearen parrokiara, apaiz laguntzaile gisa, eta herri horrek eta eskualdeak 1936ko gerra zibilaren hasieran bi apaiz fusilatu izana zuten aurrekari. Aurrekari mingarri, bidegabe eta ankerra. Horrekin, eta antzeko beste bidegabekeria eta gertakari mingarri batzuekin, herri zatitu eta mindu batek hartu zuen JMA.

JMA, bere idazki eta obretan islatzen duen guztiagatik, bokaziozko apaiza zen, eta, batez ere, Eliza Katolikoaren Doktrina Sozialarekin konprometituta zegoen; hain zuzen, horrek langileak emantzipatzera eta duintzera bultzatu zuen, bereziki prestakuntzaren eta kualifikazio profesionalaren bidez, eta pixkanaka gizarte gizatiar, justu, bidezko eta solidarioago baten aldeko konpromisoa lantzera, mugimendu kooperatiboaren bidez.

Bere apaiz misioa utzi gabe, eta bere printzipioekin bat etorriz, JMA erdigunean pertsonak eta lana zituen enpresa eredu kooperatiboa bultzatu eta harekin konprometitu zen. Horretarako, konpromisoaren beldurrik ez zuten eta lidergorako gaitasuna zuten gazte batzuk hautatu eta prestatu zituen, eta haiekin talde bat eratu zuen, bere proiektua eta obra kooperatiboa hasteko eta garatzeko gai izan zena.

JMAren lorpen handia da une bakoitzean zein etorkizunerako behar ziren ekimenen sustatzailea izan zela. Era berean, behar ziren planak abian jartzeko eta gauzatzeko gai ziren pertsonak bilatu eta aurkitu zituen. Batez ere, hezkuntza, kultura, sindikatu, politika eta gizarte inguruneetan beren arrastoa utzi zuten eta uzten jarraitzen duten liderrak sortzen lagundu zuen. Eta horrek Mondragon Korporazioa edo mugimenduaren eta enpresa kooperatiboen inguruan eratu diren beste erakunde batzuen gisako egiturak gauzatzera eraman zuen.

Pertsona berezi eta handien arrakastarik edo ekarpenik handiena ez da soilik beren bizitzan esan eta egin dutena, baizik eta proiektu eta eredu berriak bultzatzeko sortu dituzten egiturak eta tresnak, proiektu eta eredu horiek denboran iraun dezaten eta egungo zein etorkizuneko komunitateei balioa gehitzen jarrai dezaten.

Hori izan zen JMAren ekarpen handienetakoa. Hori da, halaber, egungo kooperatibismoaren kate maila bakoitzean zeregin garrantzitsua eta, kasu askotan, erabakigarria duten arduradunek beren gain hartzen duten erronka eta erantzukizun handia. Gauza guztietan aldatu den gizarte honetan, JMAren konpromiso erlijiosoa 2. mailan geratu da azkenaldian, eta batez ere humanismoaren, lan arduratsuaren, parte hartzearen, elkartasunaren, justiziaren eta askatasunaren balioak dira nagusi, egungo kooperatibismoaren nortasun ikur diren heinean. Eta horren etorkizuneko erronka enpresa kudeaketa kooperatiboa etengabe egokitzea izango da, bere funtsa galdu gabe.

JMAk pertsonengan jartzen zuen arreta, eta horiek jotzen zituen nortasun eta kalitate kooperatiboaren etorkizunaren eta arrakastaren oinarritzat.

Jose Maria Zeberio, ALEko bazkidea.
2026ko azaroa